

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuko kontseilariak eta agintariak emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko eta biktimak babesteko elkarretaratu dira

*Hitzordu horretan parte hartu dute igandean izango den Naziarteko Eguna dela-eta*

Ostirala, 2018.eko azaroak 23

Nafarroako Gobernuko kontseilariak eta veste erakunde batzuek gaur eguerdian parte hartu dute emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko eta biktimak babesteko konzentrazio isilean, igande honetan, azaroaren 25ean, egingo den Nazioarteko Eguna dela-eta.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Carlos III.arren

fatxada aurrean egin da, Foru Exekutiboak deituta. Besteak veste, bertan honako hauek bildu dira: Gobernuaren bozeramailea eta Hezkuntzako kontseilaria, María Solan; Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilaria, María José Beaumont; Osasun kontseilaria, Fernando Domínguez; Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilaria, Ana Herrera; Nafarroako Arartekoa, Javier Enériz; Espainiako Gobernuaren delegatua Nafarroan, José Luis Arasti; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Fundazioaren lehendakaria, Pablo Azcona; Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren zuzendari kudeatzailea, Mertxe Lerános, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko elkarrekin lan egiten duten agenteak eta ordezkariak.

Konzentrazioaren amaieran, María Solanak ondorengo adierazi du: Nafarroako Gobernuak "erabat gaitzesten ditu" indarkeria sexistaren adierazpen guztiak. "Emakumeak erasotzen, bortxatzen eta erahiltzen jarraitzen bada, guk ez dugu gure lanean amore emango", esan du. Halaber, honako hau gehitu du: "erabaki judizialak errespetatuaz, ezin ditugu atzokoa bezalako epaiak partekatu, berdintasunezko gizartean bizitzeko borondate eta nahiari ez baitiote erantzuten, emakumeak erasotutako izateko arriskurik gabe aske bizi ahal izateko". Azkenik, Solanak ondorengo nabarmendu du "Gobernutik, berdintasun-politikak bultzatzen jarraituko dugu, prebentziorako eta errotik kentzeko bide eraginkorrena izateagatik. Era berean, era horretako indarkeriak jasaten dituzten



Erakundeko ordezkariak eta herritarrak Nafarroako Jauregiaren aurreko konzentrazioan

emakumeak erabat babesteko eta artatzeko neurriak eta baliabideak eraten jarraituko dugu, jokabide horrekin haien bizitzaren, askatasunaren, duintasunaren eta herritartasunaren aurka erasotzen baita gizarte demokratiko batean".

### **Adierazpen instituzionala**

Nafarroako Gobernuak, asteazkeneko bilkuran, [adierazpen instituzionala onartu zuen azaroaren 25aren harira](#). Bertan, gogoratu dute "emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria dela giza eskubideen urraketarik ohikoena munduko gizarte guztietan, baita gurean ere".

Halaber, dokumentuan honako hau azpimarratu dute: "genero-indarkeriak eragindako kalteak konpontzea Administrazioen betebeharra da, eta konpentsazio ekonomikoa, erasotzailea kartzelaratzea eta neurri penalen edo bestelako neurrien ezarpena Dakar, baina haratago ere joan behar du, emakume horiek bizi izan baitute zertan bizi behar ez zuten egoera, egoera bidegabe eta onartezina, guztioi dagokigun arazo sozial batek sortutakoa".

Adierazpen honetan, baita ere gogoratu eta aitortu dituzte azken 20 urteetan Nafarroan eraildako 18 emakumeak, bizitzeko eskubidea harrapatu zieten emakumeak, umezurtz geratutako seme-alabak, haien senitartekoak eta hurbileko inguruneak. Amaitzeko, dokumentuan, Foru Exekutiboak lanean jarraitzeko konpromisoa agertu du Koordinazioko Erakunde arteko III. Akordioaren esparruan era Jarduera Planaren eta 14/2015 Foru Legearen garapeneko Plan Sektorialen bidez, emakumeenganako indarkeria-modu guztiak prebenitze aldera.